

Matrikula Murrizketak

Uda Ikastaroak Fundazioa murriztapen desberdinak eskaintzen ditu ikastaroetako tarifa orokorraren gainean. Murrizketa nola eskatu aukeratutako matrikula motaren arabera:

- **Online matrikula:** matrikula murriztua aukeratuz "dokumentazioa" / "artxiboa aukeratu" koadroa irekiko da. Dagokion dokumentazioa igo eta gero jarraitu matrikula eskaera burutu arte. Uda Ikastaroak Fundazioak igotako dokumentazioa **balioztatu behar du** matrikula behin betikoa izan dadin.
- **Matrikula PDF erabiliz:** murrizpena izateko dagokion dokumentua **erantsi behar da** eta Uda Ikastaro idazkaritzara helarazi emailez edo posta arruntaz, "[Matrikula nola egin](#)" azaltzen den moduan.

Murrizketak honela antolatzen dira:

- [Orokorrak](#)
- [Profesionalentzat](#)
- [Salbuespenak](#)

Bi modalitate daude:

- **Murrizketa orokorrek gizataldeentzat:** maiatzaren 31ra arte jarduera guztietan matrikula murriztua.
- **"Ikastaroak guztientzat" programa:** matrikula murriztua EAEko edozein kultur etxeko edo liburutegiko bazkideentzat.

1.- Matrikula murriztua gizataldeentzat:

Uda Ikastaroak **maiatzak 31 baino lehen** egindako matrikuletan murrizpenak eskaintzen ditu Ikastaroetan, Tailerretan eta Eskoletan. Kongresuak eta Jardunaldi Profesionalek **ez dute** murriztapenik. Beste jarduera batzuek ere prezio bereziak dituzte, beraz, web gunean bakoitzaren informazioa ikusi.

IKASTAROEN EGUN KOPURUA MAIATZAREN 31 ARTE

1	20€
2	35€
3	48€
4	60€
5	73€

Honako gizataldeek eskatu ahal izango dute matrikula murriztua. Izena ematean, matrikula murriztua aukeratuz gero kasu bakoitzari dagokion **dokumentazioa aurkeztu behar da** murriztapena lortzeko:

Gizataldea	Aurkeztu beharreko dokumentazioa
Ikasleak	Ikasle txartela edo egiten ari den ikasketaren matrikularen kopia bat
Langabetuak	DARDE (Lanbide txartela)
Jubilatuak	NAN
ehualumni sarean inskribatuta dauden UPV/EHUko ikasle ohiak	Partaidearen ziurtagiria: ehualumni naiz/ nire ehualumniko akreditzaioa
Kategoria orokorreko familia ugariak	Bere lurraldeko Aldundiak igorritako familia ugariaren egoera eta honen maila jasotzen duen ziurtagiria

Gizataldea

IIP, AZL eta UPV/EHUko ikasleen praktiken programen erakunde kolaboratzaileetako irakasleak (ohiko kolaboratzaileak barne)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

UPV/EHUko profesionala izatearen ziurtagiria

2.- "Ikastaroak guztientzat" Programa:

Maiatzak 31 arte %50eko beherapena "Ikastaroak guztientzat" programa osatzen duten jardueretan. Gai ezberdin ugari jorratzen dituen programa da, **interesa duen edozein pertsonari zuzenduta**.

Programa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

[Ikastaroak guztientzat](#) EAEko edozein Kultur etxeko edo liburutegiko bazkide txartela

1.- "Irakasteko Ikasten" Egitaraua:

EAEko lehen, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketeko irakasleei zuzendutako programa. Murriztapena: %50 maiatzaren 31ra arte eta %35 ekainaren 1etik aurrera.

Programa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

[Irakasteko ikasten](#) Ikastetxeak zigilatu eta sinatutako agiria

Matrikula online: inprimatu "akreditazio dokumentua". Sinatu eta zigilatu ondoren igo zure matrikula eskaerara. Jarraitu pausoak eta amaitu prozedura.

[Akreditazio dokumentua](#)

2.- "Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa" Programa:

EAEko osasun publikoko arloko profesionalentzat zuzendutako programa. Murrizketak: %75eko beherapena.

Programa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

[Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa](#)

Osakidetzako profesionalentzako zerbitzu antolakundeko langileen zuzendaritzak zigilatu eta sinatutako agiria

Matrikula online: inprimatu "akreditazio dokumentua". Sinatu eta zigilatu ondoren igo zure matrikula eskaerara. Jarraitu pausoak eta amaitu prozedura.

[Akreditazio dokumentua](#)

Matrikula PDF bidez: matrikula deskargatu, bete eskaera (azkeneko orria sinatu eta zigitatu) eta bidali:

- Emaillez: uik@uik.eus
- Postaz: Miramar Jauregia. Mirakontxa, 48. Donostia 20007

[Matrikula PDF](#)

Uda Ikastaroetan **20€ko kudeaketa gastuak ordainduz** matrikula daitezkeen kolektiboak. Pertsona interesatuak dagokien egoeran egon beharko dute matrikula egiterakoan eta dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Gizataldeak

Kategoria bereziko **familia ugariak**

Aurkeztu beharreko dokumentazioa (*)

Dagokion lurraldeko Aldundiak igorritako familia ugariaren egoera eta honen maila jasotzen duen ziurtagiria

Gizataldeak

%33ko edo gehiagoko **ezintasuna** duten pertsonak

Familian %65eko edo gehiagoko **ezintasuna** duen kideren bat duten ikasleak, baldin eta etxebizitza berean erroldatuta badaude

Ekintza terrorista bateko biktimak, bere senar edo emazteak, seme-alabak edo horiek legez hartutakoak.

Genero indarkeriaren biktimak eta bere kargura dituzten eta eurekin bizi diren 25 urtetik beherako seme-alabak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta badaude

Aurkeztu beharreko dokumentazioa (*)

Administrazio eskudunak ezintasuna mailari buruz emandako erabakia

- Administrazio eskudunak ezintasuna mailari buruz emandako erabakia

- Administrazio egoitza edo errolda ziurtagiria

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Programari atxikitze erabakia

- Administrazio egoitza edo errolda ziurtagiria

- Biktima izatearen ebazpen judiziala edo biktimaren alde eman eta indarrean dagoen babes agindua edo Ministerio Fiskalaren txostena

- EAEn administrazio egoitza eduki edo erroldatuta egotearen ziurtagiria

(*) Data horretan, aitortpena izapidetzen egongo balitz, aitortzeko edo berrikusteko eskabidearen kopia konpultsatu bidez egiaztatuko da.